




ORDENANTZAK

ANDRE MARIA ZURIAREN
KOFRADIA

Vitoria-Gasteiz
2023ko urriaren 17a



Juan Carlos Elizalde Espinal

Gasteizko Gotzainak

Jainkoaren eta Egoitza Apostolikoaren graziaz

Gasteizko (Araba) Andre Maria Zuriaren Kofradiaren abadeak, Ricardo SAEZ DE HEREDIA SALAZAR jaunak, aipatu kofradiaren ordenantzak aldatzeko egindako eskaerari erantzunez eta, 2023ko urriaren 17an, kofradiakideen ezohiko batzar orokorrak ordenantza berriak onartu ondoren, Zuzenbide Kanonikoko Kodearen 314. kanonaren arabera;

HONAKO HAU AGINTZEN DUT

Onartzea Andre Maria Zuriaren Kofradiaren Ordenantza berriak. Bi zati dituzte: **Estatutuak** (berrogeita hamar artikulua) eta **Erregelamendua** (sarrera eta hogeita bat artikulua). Dekretu honen datan jarriko dira indarrean. Horien kopia bat Gasteizko Gotzaindegiko Idazkaritza Nagusian gordeko da.

Gasteizen, bi mila eta hogeita hiruko azaroaren hogeita zazpian.

Juan Carlos Elizalde



✠ **Juan Carlos ELIZALDE ESPINAL**
Gasteizko Gotzaina

Fedea ematen dut:

J.M. Ochoa de Aspuru

Juan Manuel OCHOA DE ASPURU
Kantzilerra – Idazkari Nagusia





Lehen zatia

ESTATUTUAK

I. TITULUA

ANDRE MARIA ZURIAREN KOFRADIA:
JATORRIA, IZAERA ETA HELBURUAK

6

II. TITULUA

KOFRADIAKO KIDEAK:
ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

8

III. TITULUA

KOFRADIAREN ANTOLAKUNTZA
ETA GOBERNUA

9

1. KAPITULUA: GOBERNU-ORGANOAK

9

- LEHEN Atala: XEDAPEN OROKORRAK
- BIGARREN Atala: BATZAR NAGUSIA
- HIRUGARREN Atala: GOBERNU BATZORDEA
- LAUGARREN Atala: BATZORDE IRAUNKORRA

2. KAPITULUA: KOFRADIAKO KARGUAK

14

- LEHEN Atala: ABADEA/ABADESA
- BIGARREN Atala: ZUZENDARI ESPIRITUALA
- HIRUGARREN Atala: LEHENDAKARIORDEAK
- LAUGARREN Atala: IDAZKARIA, DIRUZAINA ETA BATZORDEKIDEAK
- BOSGARREN Atala: BETE GABEKO KARGUAK

IV. TITULUA

ONDAREA

18

V. TITULUA

ORDENANTZAK ONARTZEA
ETA ALDATZEA

19



Bigarren zatia

ARAUDIA

I. TITULUA

EKITALDIETAN GORDE BEHARREKO
ARAU ZEREMONIALAK

23

II. TITULUA

ANDRE MARIA ZURIAREN
OMENEZKO GURTZAK

24

III. TITULUA

PERTSONA BAKARREKO
ORGANOEN EGINKIZUNAK

26

IV. TITULUA

ABADEAREN/ABADESAREN HAUTAKETA

30





Lehen zatia

ESTATUTUAK

ESTATUTUAK

I. TITULUA

ANDRE MARIA ZURIAREN KOFRADIA: JATORRIA, IZAERA ETA HELBURUAK

■ 1. Artikulua.

Andre Maria Zuriaren Kofradia Gasteizen eratu zen kandelagileen gremioaren ekimenez. 1613ko ekainaren 17an sortu zen modu kanonikoan San Migel Arkanjeluaren parrokian eta gaur egun ere hor du egoitza. Hain zuzen ere, eliza horretan daude Ama Birjinaren kapera eta horma-hobia, eta hor egiten dira Andre Maria Zuriaren omenezko ospakizunak. Zapatari kalea 35 helbidean dago egoitza.

■ 2. Artikulua.

Kofradiaren helburua Santa Maria Jainkoaren Ama gurtzea da, Andre Maria Zuriaren deiturapean, eta haren omenezko debozio publiko nahiz pribatua sustatzea, baita debozio horri loturiko orotariko jarduerak (erlijiosoak, historikoak, artistikoak, folklorikoak, etnografikoak) bultzatzea ere.

■ 3. Artikulua.

Kofradia fededunen elkarte publikoa da, eta Zuzenbide Kanonikoaren arauak (298.-320. kanonak), pertsona juridikoen gaineko xedapen orokorrek (113.-123. kanonak), ordenantza hauek eta Kofradiaren organo eskudunek aurreko guztiak garatzeko onartzen dituzten arauak zuzentzen dute.

■ 4. Artikulua.

Zuzenbide Eklesiastikoko elkarte publikoa izanik, Kofradiak izaera zehaztugabea du. Agintaritza eskudunak legez bertan behera utziz gero edo ehun urtez jarduera etenez gero azkenduko da soilik (120. kanona).

Diozesiko apezpikuak desagerrarazi egin dezake arrazoi larria dela medio, aurretik abadeari/abadesari eta Gobernu Batzordeari entzun eta gero (320. kanona).

■ 5. Artikulua.

Helburuak bete daitezten, kofradiak honako hauek sustatuko ditu:

- Jainkoaren amarekiko maitasuna eta filiazioa.
- Andre Maria Zuriarekiko debozioa eta ondra.
- Dohain kristauetan jardutea.
- Senidetasuna, bakea eta harmonia pertsona guztien artean, bereziki, kofradiakideen eta gasteiztarren artean.
- Kofradiakide guztien batasun espirituala, eta, oro har, Gasteizko diozesiko fededun guztiena, eta apezpikuarekin bat etortzea.
- San Miguel parrokia-Andre Maria Zuriaren santutegiko jarduera propioak sustatzea, bultzatzea eta horietan parte hartzea.
- Gizatalde guztiekiko elkartasuna, bereziki behartsuenekiko.
- Biltzarrak, ekitaldiak, topaketak, eta abar antolatzea eta egitea antzeko helburuak dituzten beste elkarte eta taldeekin.
- Kofradiaren ondare erlijiosoa, artistikoa eta kulturala hobeto eza-gutaraztea ahalbidetzen duten argitalpenak, erakusketak eta bes-telako jarduerak sustatzea.
- Farolen Museoa mantentzea. Museo hori Andre Mariarekiko debozioaren eta Gasteizko nahiz Arabako ondare historiko eta artis-tikoaren adierazgarri berezia da.
- Gure herriko kultur ondore immaterialaren sustapena, tartean, tradizioak eta ahozko adierazpenak, bai eta Andre Maria Zuriare-kin lotutako gizarte-ohiturak, errituak eta jaiak ere.

■ 6. Artikulua.

Kofradiako kideztat onartu ahal izango dira hala eskatzen duten eta kofradiaren helburuekin bat datozen Eliza katolikoko fededun guztiek.

Adingabeen kasuan, eskaera gurasoek edo tutoreek egin dezakete. Hala ere, adingabeak adin-nagusitasunera heltzean, kofradiakide izatea libreki berresteko eskatuko zaio.

■ 7. Artikulua.

Kofradiakideen eskubideak:

- Kofradian egoteagatik eta laguntzeagatik ezarritako induljentzi-etan eta grazietan parte hartzea eta, hiltzean, haien omenez hiru meza egitea.
- Farolen Arrosarioko prozesioan parte hartzeko eskatzea.
- Partaidetza aktiboa izatea batzar orokor ohiko eta ezohikoetan. Dena den, eskubide hori ez da izaten kofradian onartu eta urtebetera arte.
- Kofradiaren egoera ekonomiko eta administratiboaz informazioa jasotzea, bai eta egindako obrez eta aztergai diren proiektuez ere.
- Gobernu-organoetako kideak hautatzea eta horietako kide hautatua izatea.
- Gobernu-organoei iradokizunak edo proposamenak aurkeztea, azter ditzaten, eta, hala badagokio, erabakiak har ditzaten.

■ 8. Artikulua.

Kofradiakideei eskatzen zaiena:

- Kofradiako kideen eta Gasteizko fededunen batasun espirituala-
ren alde lan egitea, betiere honako ordenantza hauetan jasotako
helburuekin eta bitartekoekin bat.
- Kofradiak antolatutako edo sustatutako ekitaldi publiko eta pri-
batu guztietan parte hartzea, bereziki Andre Maria Zuriaren jaia
ospatzekoetan.

Batzorde Iraunkorrak jokabide desegokia izaten ari direla ohartaraziko die lehendabizi, eta, jaramonik egiten ez badute, kargutik kentzeko espedientea izapidetuko du izendapena onartu zuen gobernu-organismoaren aurrean.

■ 12. Artikulua.

Gobernu-organoetan auziak bozketa bidez erabakiko dira, eta bertaratu behar diren gehiengoz onartu. Ez dira zenbatuko abstentzioak eta boto nulukoak. Kide bakoitzak boto bakarra du eta boto guztiek berdina balio dute.

Bozketa guztiak publikoak izango dira, pertsonak hautatu behar direnean edo bertaratu behar diren bosten batek eskatzen duenean salbu.

Bi zenbaketa egin eta gero botoetan berdinketa badago, abadearen/abadesaren kalitatezko botoak ebatziko du auzia.

Izendapenen kasuan, bi hautagairen edo gehiagoren arteko berdinketa badago ondoz ondoko bi bozketetan, adinez zaharragoa dena hautatuko da.

.....
III. TITULUA · I. KAPITULUA

Bigarren Atala ■ BATZAR NAGUSIA

■ 13. Artikulua.

Batzar Nagusia da Kofradiako erabaki- eta gobernu-organo gorena, eta eskumen hauek ditu:

- Ordenantzak eta horien aldaketak onartzea.
- Abadea/abadesa hautatzea.
- Gobernu Batzordeko lehendakariordeen, idazkarien, diruzainen eta gainerako kideen izendapenaren berri jasotzea.
- Kofradiakide emerituak Gobernu Batzordera goratzeko erabakia berrestea.
- Aurrekontuak, kontuak eta urteko memoria onartzea.
- Kofradiako jardueretan eragina duten auzietan, Gobernu Batzordeari proposamenak eta iradokizunak egitea.

■ 14. Artikulua.

Batzar Nagusiak gutxienez urtean behin egingo du ohiko bilkura, ahal dela azken hiruhilekoan, aldez aurretik abadeak/abadesak deialdia eginda, Gobernu Batzordearekin ados etorrira.

Bilkuran, hala badagokio, ordenantzak eta horien aldaketak, izendapenak, aurrekontuak eta kontuak jorratuko dira, bai eta Batzar Nagusiaren eskumeneko beste edozein auzi ere.

Idazkariak memoria bat aurkeztuko du bilkuran, gutxienez eduki hauek izan beharko dituena: kofradiakideen altak eta bajak, egindako jarduerak, eta aztergai diren proiektuak. Diruzainak, berriz, kontuen egoera azalduko du, gastuen eta diru-sarreraren emaitzak azalduz, bai eta onartutako aurrekontuekin bat datozen ere.

■ 15. Artikulua.

Ezohiko Batzar Nagusi bat egin ahal izango da abadeak/abadesak, Gobernu Batzordeak edo Batzorde Iraunkorrak hartutako erabakia dela eta, deialdia egiten badu auzi baten edo gehiagoren izaera edo urgentziagatik Batzar Nagusiaren onarpena beharrezkoa delako, edota kofradiakideen gutxienez hogeiren batek idatziz hala eskatzen badu.

Ezohiko Batzar Nagusietan soilik deialdian jasotako auziak jorratu daitezke.

■ 16. Artikulua.

Batzar Nagusietarako deialdiak, izan ohikoak izan ezohikoak, batzarra egiteko hautatutako data baino gutxienez hamar egun lehenago iragarri beharko dira jakinarazpen-bide ohikoen bitartez, jorratuko diren auziak labur adierazita.

Gai-zerrendan ordenantzak aldatzeko proposamenak badaude, aldatu nahi diren testuak kofradiakideen eskura jarriko dira Kofradiaren egoitzan, gutxienez 30 egun lehenago.

Batzar Nagusiez gain, abadeak/abadesak, Batzorde Iraunkorrarekin aurretiaz adostuta, batzar informatiboak deitu eta egin ahal izango ditu.

■ 17. Artikulua.

Abadeari/abadesari dagokio, edo bere ordezkoari, Batzar Nagusien buru izatea, bilkurak hasi eta amaitzea, deliberamenduak zuzendu eta bideratzea, eskatutako ordenan hitza ematea eta Kofradiako ordenantzak zorrotz betetzen direla zaintzea.

.....
III. TITULUA · 1. KAPITULUA

Hirugarren atala ■ GOBERNU BATZORDEA

■ 18. Artikulua.

Gobernu Batzordea abadeak/abadesak, lehendakariordeak, idazkariak, diruzainak, batzordekideek eta kapilauak osatzen dute.

■ 19. Artikulua.

Hauek dira Gobernu Batzordearen eskumenak:

- Kofradiak behar bezala funtziona dezan beharrezkoak diren akordio eta erabakiak hartzea, bai eta Batzar Nagusiak onartutakoak gauzatzea ere.
- Aurrekontu-proiektuak, kontuak eta urteko memoria onartzea.
- Kofradiaren ordenantzetan beharrezkotzat jotzen diren aldaketak proposatzea.
- Batzar Nagusiaren erabakiaren mende jartzea abade/abadesa kargua nork beteko duen eta Gobernu Batzordeko gainerako kideak nortzuk izango diren.
- Abadeak/abadesak proposatuta, Batzorde Iraunkorreko kideak hautatzea eta batzordeetako arduradunak izendatzea.
- Batzorde Iraunkorraren jarduera exekutiboa kontrolatzea.

■ 20. Artikulua.

Gobernu Batzordea gutxienez hilean behin bildu ahal izango da ohi-ko bilkuran, abadeak/abadesak aldez aurretik deialdia eginda, besteak beste, eskumeneko dituen auziak tratatzeko.

■ 21. Artikulua.

Gaiak aztertzeko edo prestatzeko, Gobernu Batzordeak hainbat batzorde izenda ditzake, zeintzuen deitzaile eta buru izango baita izendatzen den Batzorde Iraunkorreko kidea.

.....
III. TITULUA · 1. KAPITULUA

Laugarren atala ■ BATZORDE IRAUNKORRA

■ 22. Artikulua.

Gobernu Batzordeko Batzorde Iraunkorra da bai Gobernu Batzordearen bai Batzar Nagusiaren akordioen organo betearazlea, eta abadeak/abadesak, lehendakariorde batek, diruzain batek eta idazkari batek osatuko dute.

■ 23. Artikulua.

Batzorde Iraunkorra Gobernu Batzordearen akordioen organo bete-arazle gisa osatzen bada ere, honako beste zeregin hauek ere baditu:

- Gobernu Batzordearen gai-zerrenda prestatzea.
- Helburuen eta proiektuen proposamenak aurkeztea.
- Lanak gauzatzeko estrategiak bilatzea.
- Batzar arteko aldietan erabaki urgenteak hartzea.

■ 24. Artikulua.

Abadeak/abadesak beharrezkotzat jotzean deitu ahal izango ditu Batzorde Iraunkorraren bilerak.

Urgentziagatik komeni bada, Batzorde Iraunkorrak ezohiko bilera batera deitzeko eskatu ahal izango dio abadeari/abadesari, auzi bat tratatzeko edo onartzeko.

2. KAPITULUA: KOFRADIAKO KARGUAK

III. TITULUA · 2. KAPITULUA

Lehen Atala ■ ABADĒA/ABADESA

■ 25. Artikulua.

Abadeari/abadesari dagokio Kofradia eta bertako gobernu-organoen buru izatea, bai eta Kofradiaren ordezkari izatea edozein agintaritzan, erakunde eta pertsonaren aurrean ere. Besteak beste, eginkizun hauek ditu:

- Batzar Nagusien, Gobernu Batzordearen eta Batzorde Iraunkorren bileren buru izatea, hartutako akordioak betearaziz eta zainduz, bai eta, komenigarritzat jotakoan, batzordeetako bileretara bertaratzea ere.
- Kofradiaren beraren ospakizun eta ekitaldietara bertaratzea.
- Kofradiak emandako agiriak sinatuz baimentzea.
- Ekitaldi erlijiosoetan eta prozesioetan bere kargua eta duintasuna egiaztatzen dituen aginte-makila eramatea.

■ 26. Artikulua.

Abadea/abadesa hautatzea Batzar Nagusiari dagokio, betiere hautagaitzak abadea/abadesa hautatzeko araudian ezarritako prozedurari jarraituz aurkeztu ondoren (Araudiaren IV. titulua).

Hautatua izan ondoren, abadea/abadesa diozesiko apezpikuari aurkeztuko zaio, berrets dezan.

■ 27. Artikulua.

Kargualdia lau urtekoa izango da, eta beste bitan hautatu ahal izango da. Kargualdia, beraz, gehienez 12 urteko izango da.

Bigarren Atala ■ KAPILAUA

■ 28. Artikulua.

Kapilaua izendatzea diozesiko apezpikuaren eskumen eksklusiboa da, betiere Kofradiako Gobernu Batzordeari entzunda. Eskuarki San Miguel Arkanjeluaren parrokia-Andre Maria Zuriaren santutegiko parrokoa izango da kapilaua.

Kofradiaren orientazio eta aholkularitza espiritualaz arduratzea izango du oinarrizko zeregin, eta bete beharko dituen eginkizun espezifikoak ordenantza hauetako araudiko 9. artikuluan daude zehaztuta.

Hirugarren Atala ■ LEHENDAKARIORDEAK

■ 29. Artikulua.

Bi lehendakariordetza ezartzen dira: Ondarearen Lehen Lehendakariordetza eta Deboziazko Agerpen eta Zeremonietarako Bigarren Lehendakariordetza. Abadea/abadesa ordezkaturiko dute, dagokion ordenan, hutsunerik, absentziarik edo aldi baterako eragozpenik baldin badago.

■ 30. Artikulua.

Abadeari/abadesari dagokio lehendakariordeak izendatzea, betiere Gobernu Batzordeari kontsultatu eta gero.

Balizko berrautaketetarako, 27. artikuluan abadearen/abadesaren gainean ezarritakoa hartuko da aintzat.

■ 31. Artikulua.

Lehendakariordetzen zereginak dira Kofradiaren ondorearen kontrolarekin, zaintzarekin, zaharberritzearekin eta sustapenarekin lotutako guztiak, bai eta deboziazko agerpenak eta zeremoniak antolatzea eta sustatzea ere; bete beharreko eginkizun espezifikoak ordenantza hauetako araudiko 10. eta 11. artikuluetan daude zehaztuta.

Laugarren Atala ■ IDAZKARIA ETA GAINERAKO KARGUAK

■ 32. Artikulua.

Idazkariaren zeregin orokorren artean daude gobernu-organoen bi-leretara joatea eta akta egitea, akordioen fede ematea eta Kofradiaren agiriak izapidetzea, eta, zehazki, ordenantza hauetako araudiko 12. artikuluan zehaztutakoez arduratzea.

Kargua bi pertsonak bete ahalko dute: idazkariak eta idazkariordeak.

■ 33. Artikulua.

Diruzainaren zeregina da Kofradiaren ondare ekonomikoa osatzen duten funtsak eta ondasunak administratzea, bai eta Kofradiaren baliabideak kudeatzea ere. Bete beharreko eginkizun espezifikoak, berriz, ordenantza hauetako araudiko 13. artikuluan zehaztutakoak dira. Kargua bi pertsonak bete ahalko dute: diruzainak eta diruzainordeak.

■ 34. Artikulua.

Artxibozain-dokumentalistari dagokio Kofradiaren artxibo historiko eta administratiboa antolatzea, funts dokumentalak erreuperatzea, dokumentazioa behar bezala zaintzeko beharrezko diren bitartekoak proposatzea eta ordenantza hauetako araudiko 14. artikuluan zehaztutako gainerako eginkizunak betetzea.

■ 35. Artikulua.

Komunikabide sozialen eta argitalpenen arduradunak ezarriko ditu komunikabideekiko harreman-sistemak, eta webguneaz, sare sozialez eta gainerakoez arduratuko da, baita sortutako informazioa biltzeaz ere. Halaber, Kofradiak antolatzen dituen ekitaldiak jakinarazteko moduak proposatuko ditu. Horrez gain, ordenantza hauetako araudiko 15. artikuluan zehaztutako gainerako zereginak beteko ditu.

■ 36. Artikulua.

Plangintza eta proiektuen arduradunari dagokio Kofradiaren epe ertain eta luzeko plan estrategikoa lantzea, bai eta aurreikusitako helburuak betetzeko beharrezko diren lan, jarduera eta baliabideak aurkeztea ere. Dituen eginkizun espezifikoak ordenantza hauetako araudiko 16. artikuluan daude zehaztuta.

■ 37. Artikulua.

Boluntariotzako arduradunari dagokio giza baliabideak kudeatzea eta Kofradiaren musu truk lan egiten duten kolaboratzaileak artatzea, zehazki, boluntarioen eta Gobernu Batzordearen arteko zubi lana egin behar du. Kargu honen eginkizun espezifikoak ordenantza hauetako araudiko 17. artikuluan daude zehaztuta.

■ 38. Artikulua.

Abade/abadesa emerituaren figura ezartzen da, aldez aurretik Kofradiaren goreneko ardura izan dutenek bete ahal izango dutena Gobernu Batzordeak hala proposatuta. Gonbidapena jasoz gero, Gobernu Batzordearen bileretan parte hartu ahal izango dute.

■ 39. Artikulua.

Atal honetan jasotako karguen hautaketa, bai eta Batzorde Iraunkorreko kideena ere, Gobernu Batzordeari dagokio, betiere abadearen/abadesaren proposamenari jarraituz.

Aurreko paragrafoan aipatutako pertsona guztien agintaldia lau urtekoa izango da, eta luzatu ahal izango da.

■ 40. Artikulua.

Batzordeak osatuz gero, dagokion karguduna izango da burua, bai eta deialdiak egitearen arduraduna ere; idazkaria, berriz, zeregin horretarako hautatutako batzordekidea izango da.

.....
III. TITULUA · 2. KAPITULUA

Bosgarren Atala ■ BETE GABEKO KARGUAK

■ 41. Artikulua.

Heriotza, dimisioa edo kargua betetzea galarazten duen gaixotasuna gertatzekotan, lehen lehendakariordeak ordezkatzeko du abadea/abadesa, Batzar Nagusia egin arte.

■ 42. Artikulua.

Bete gabeko kargua Gobernu Batzordeko beste edozein kiderena baldin bada, Gobernu Batzordeak berriz izendatuko ditu karguak behin-behinean, eta hurrengo Batzar Nagusian jakinaraziko du erabakitakoa.

■ 43. Artikulua.

Kofradiak gaitasun juridikoa du ondasunak erosteko, atxikitzeko, administratzeko edo besterentzeko, zuzenbidearen arabera (1.255. kanona).

Ondasunen jabetza Kofradiari dagokio. Kofradiaren ondasunak ondasun eklesiastikoak dira (1.257. kanona).

■ 44. Artikulua.

Kofradiak ondasunak administratuko ditu Kofradiaren izaeraren eta helburuen arabera, honako ordenantza hauekin bat eta agintaritza eklesiastikoaren zuzendaritza gorenaren pean, zeinaren aurrean kon-tuak eman beharko baititu urtero (319. kanona).

■ 45. Artikulua.

Kofradiak, horrenbestez, honakoak egin ahal izango ditu:

- a. Orotariko ondasunak eta eskubideak erosi eta besterendu Zuzenbi-de Zibilean ageri diren modalitate guztien bidez.
- b. Herentziak, legatuak eta dohaintzak onartu.
- c. Fededunen artean diru-bilketak egin Kofradiaren gastuak ordaintzeko edo Eliza katolikoaren tutoretzapeko laguntza- edo ongintza-lanak garatzen laguntzeko.

■ 46. Artikulua.

Kofradiaren ondasunak diruzainak administratuko ditu, eta al bait hobekien kudeatzen saiatuko da.

Diruzainak, Gobernu Batzordearen edo Batzar Nagusiaren baime-nik eskatu gabe, administrazioko ohiko ekintza guztiak egin ditzake, kasuaren arabera betiere. Ezohiko jardueretarako adierazitako bi orga-noetako baten baimena beharko du.

Batzar Nagusiaren baimena beharko da, baldin eta besterendu nahi diren ondasunen balioak gainditu egiten badu abian den urterako onar-

tutako aurrekontuen hogueirenari dagokion zenbatekoa. Gainerako eragiketak egiteko, berriz, nahikoa izango da Gobernu Batzordearen baimena.

■ 47. Artikulua.

Kofradia desagertzen bada, bere ondasunak San Miguel Arkanjeluaren parrokia-Andre Maria Zuriaren santutegiari emango zaizkio.

V. TITULUA

ORDENANTZAK ONARTZEA ETA ALDATZEA

■ 48. Artikulua.


Ordenantza hauek Batzar Nagusiak onartu eta diozesiko apezpikuak berrestean jarriko dira indarrean, eta horrela jarraituko dute indargabetzen edo aldatzen ez diren bitartean.

■ 49. Artikulua.

Gobernu Batzordeak, ekimen propioz edo kofradiakideen bosten batek hala eskatuta, egokituz jotako zuzenketak (edukia gehitzea, kentzea zein aldatzea) proposatu ahalko dizkio Batzar Nagusiari.

■ 50. Artikulua.

Ordenantzetan jasota ez dagoen manu bat gehitzeko, beharrezkoa izango da Batzar Nagusira bertaratutako kofradiakideen gehiengo osoa alde egotea. Indarreko testuaren manu bat kentzeko edo aldatzeko, berriz, Batzar Nagusira bertaratuen bi heren egon beharko dira alde.





Bigarren zatia

ARAUDIA

ARAUDIA



Helburuak lortzeko, Kofradiak baliabide hauek izango ditu:

- a. Andre Maria Zuriaren aurrean deialdi komunitarioak egitea (gurtza-ekitaldiak, prozesioak, taldeen bisitak eta beste), kofradiakide eta gasteiztar guztiak bertaratu daitezela sustatzea eta Andre Mariarekiko debozio aktiboa izatea (kapera bisitatzea, horma-hobiaren aurrean eskaintzak egitea eta beste), eta, data seinalatuak ospatzeko, esker-emate ekitaldiak antolatzea.
- b. Behar diren jarduera guztiak gauzatzea Faren Museoaren osatzen duten pieza artistiko guztiak kontserbatze aldera; museoaren edukia ezagutarazteko kanpainak gauzatzea (bisitaldi gidatuak, teknologia berrien bitartez ezagutaraztea eta abar), eta Kofradiak XVII. mendeaz geroztik izandako jardueraren ondorioz sortutako ondare dokumentala eta bibliografikoa kontserbatzea, antolatzea eta ezagutaraztea.
- c. Gizarte-komunikazioko nahiz Kofradiaren barne baliabide guztiak erabiltzea kofradiakideen eta fededunen ezagutarazte- eta prestakuntza-lanetarako, bai eta beste erlijio, gizarte, kultura erakundeekiko eta abarreko harremanetan lankidetzan aritzeko ere.

■ 1. Artikulua.

Kofradiakideen harrera Andre Maria Zuriaren kaperan egingo da ekainaren 17an; alegia, Kofradia eratu zen urteurrenean, edota egokitzat jotzen den beste edozein datatan.

Kapilauak bedeinkatuko du kofradiakide berri bakoitzari abadeak/abadesak jarriko dion bereizgarria.

■ 2. Artikulua.

Abadeak/abadesak Andre Maria Zuriaren kaperan kargua hartuko du, izendapena egiten den Batzar Nagusian adierazitako datan.

Behin idazkariak Batzar Nagusiaren erabakia irakurri ondoren, hautatuak kargua onartzeko formula esan, eta karguari dagozkion betebeharrak betetzeko konpromisoa hartuko du. Kapilauak bereizgarri pertsonalak bedeinkatuko ditu eta izendatutakoei ezarriko dizkie.

Kargua uzten duen abadeak/abadesak aginte-makila emango dio ordezkoari.

■ 3. Artikulua.

Kofradiako gobernu-organoetako gainerako kideek aurreko artikuluko bigarren paragrafoan adierazi bezala hartuko dute kargua.

Abadeak/abadesak emango dio bereizgarria kapilauari.

■ 4. Artikulua.

Kofradiako organoetako kideen bereizgarria Kofradiako domina ofiziala izango da.

Bereizgarri horiek Gobernu Batzordeko kideek soilik eramango dituzte Kofradia joaten den ekitaldietan.

■ 5. Artikulua.

Tenpluaren barruan egiten diren ekitaldi erlijiosoetan, banderak irekiko du prozesioa. Atzetik, Gobernu Batzordeko gainerako kideak joango dira, eta abadeak/abadesak eta lehendakariordeek itxiko dute.

Udalbatzako kide guztiek parte hartzen badute, alkatea, hiriko Udalteixaren ordezkari gisa, Kofradiako ohorezko abade/abadesa den aldetik, abadearekin/abadesarekin partekatuko du lehendakaritza.

Abadeak/abadesak karguaren bereizgarri den aginte-makila emango dio alkateari tenpluan sartzean, eta, irteeran, jaso egingo du, eta udalbatzako kideak agurtuko ditu.

Segizioetan, prozesioetan eta abar, lehenik eta behin parte hartzen duten kofradiakideek desfilatuko dute, bandera atzetik dutela. Atzetik, Gobernu Batzordeko gainerako kideak joango dira. Martxa abadeak/abadesak eta lehendakariordeek itxiko dute. Segizioa Andre Maria Zuriaren irudiaren aurretik egingo da hari eskainitako prozesioetan.

■ 6. Artikulua.

Kofradiako ikur den aldetik, bandera presente izango da Batzar Nagusietan, kofradiakideen harrera-ekitaldietan eta kargua hartzekoetan, ofizialki programatutako gurtza-ekitaldietan eta Gobernu Batzordeko kideen hileta-ospakizunetan.

II. TITULUA

ANDRE MARIA ZURIAREN OMENEZKO GURTZAK

■ 7. Artikulua.

Andre Maria Zuriaren omenezko bestelako ekitaldien kalterik egin gabe, betiere hauek ospatuko dira:

- **BEDERATZIURRENA.** Uztailaren 27a eta abuztuaren 4a bitartean bederatziurrena egiten da Andre Mariaren jaiaren aurretik. Bederatziurrenaren azken egunean, bezpera nagusi abestuak egingo dira.

- **AUROROEN JAIA.** Abuztuaren 4aren aurreko igandean ospatuko da.
- **FAROLEN PROZESIOA.** Abuztuaren 4ko gauean, XIX. mendetik, Farolen Arrosarioaren prozesioa egiten da; hots, karrozak eta farolak, eta horien atzetik San Domingo Guzmangoaren eta Andre Maria Zuriaren irudiak egoten dira.
- **IBILBIDE TRADIZIONALAK XX.** mendeko bigarren zatiko zabalguneko kaleak barne hartzen ditu. Bukatzeko, salbea egiten da Andre Maria Zuriaren plazan, prozesioko irudiaren aurrean.
- **AURORAREN ARROSARIOAREN PROZESIOA.** Abuztuaren 5ean hiriko Erdi Aroko kaleak zeharkatzen ditu, San Domingo Guzmangoaren eta Andre Maria Zuriaren irudiek lagunduta. Horiek blusek eramaten dituzte bizkar gainean. Ibilbidea Andre Maria Zuriaren Plazan bukatzen da, eta hor meza santua egiten da, Kofradiako kapilauaren eskutik.
- **MEZA PONTIFIKALA.** Abuztuaren 5ean, San Miguel Arkanjeluren parrokia-Andre Maria Zuriaren santutegian meza pontifikala egiten da, diozesiko apezpikua buru dela.
- **KOROATZEAREN OROITZAPENEZKO MEZA.** Urriaren 17an, 1954az geroztik eta Andre Maria Zuriaren koroatze kanonikoaren ondoren, jazoera hori gogoratzeko meza nagusia egiten da esker emateko, sermoi eta guzti.
- **HILEN MEZA.** Azaroaren 2an hileta meza egiten da hildako kofradiakide guztien omenez.
- **HILEKO HIRUGARREN LARUNBATAK.** Larunbat horietan guztietan, 1961az geroztik, meza santua ospatzen da arrosarioaren ondoren, Gasteizen aurreko hilean hil diren pertsona guztiak omentzeko.

8. Artikulua.

ABADEAREN/ABADESAREN eginkizunak.

Ordenantzen hainbat artikulutan zehazten dira, bereziki 25. artikuluan.

9. Artikulua.

KAPILAUAREN eginkizunak.

- Kofradiaren orientazio espiritualak.
- Parrokiarekiko harremanak.
- Proiekzio pastoralak.
- Andre Mariari buruzko pastoralak.

10. Artikulua.

LEHEN LEHENDAKARIORDEAREN eginkizunak.

FAROLEN MUSEO-ETXEA:

- Farolen Museoa ezagutarazteko programak proposatzea eta horiez aholku ematea (bisita gidatu orokorrak, erakundeen bisitak, pertsona garrantzitsuen bisitak eta beste).
- Obrak proposatzea.
- Alarma- eta segurtasun-sistemen kudeaketa (su-itzalgailuak, sarrrerako ateak eta beste).
- Bisiten ingurukoak antolatzea (ordutegia, arreta, gida, erreserbak eta beste).

ANDRE MARIA ZURIAREN KAPERA:

- Parrokiarekin kolaboratzea haren mantentze-lanetan eta hura garbitzen eta apaintzen, bai eta hura berritzeko egin daitezkeen obretan ere.

HORMA-HOBIA ETA XIV. MENDEKO IRUDIA:

- Uneko arreta, eta mantentze- eta zaharberritze-lanen proposamenak.

KUTXA GOTORRA:

- Koroak eta zetroa: lekualdatzea eta irudian jartzea.
- Dohaintzan edo gordailuan emandako bitxiak, inbentarioa eta deskribapena.

IRUDIAK ETA BESTE OBJEKU BALIOTSU BATZUK:

- Gurtzarako diren edo gordailuan dauden objektuen inbentarioa.
- Konpontzeko edo zaharberritzeko eta jarraipena egiteko proposamenak.
- Lekualdaketak.

■ **11. Artikulua.**

BIGARREN LEHENDAKARIORDEAREN eginkizunak.

KARROZAK ETA FAROLAK:

- Elementuak mantentzea, ematea eta biltzea.
- Konpontzeko, arreta eskaintzeko eta jarraipena egiteko formulak proposatzea.

PROZESIOAK:

- Programazio orokorra eta ibilbideena.
- Irteera, ibilbide eta iritsierako muntaketa.

■ **12. Artikulua.**

IDAZKARIAREN eginkizunak.

KUDEAKETA ADMINISTRATIBOA:

- Ordenantzak betetzen direla zaintzea.
- Bilerak deitzea.
- Aktak egitea.
- Erabakiak jakinaraztea.
- Urteko memoria egitea.
- Gutunak irekitzea eta bidaltzea.
- Egiaztagiriak ematea.
- Dirulaguntzak eskatzea.

DOKUMENTAZIOA ETA AHOLKULARITZA:

- Dokumentu administratiboak artxibatzea.
- Kofradiakideen fitxategia mantentzea.

- Ordenantzen aldaketak proposatzea.
- Datu-babeseko arduraduna izatea.

INFORMAZIOA:

- Kofradiakideak, pertsonak eta erakundeak informatzea.
- Kanpainak programatzea.
- Protokoloko arduraduna izatea.

■ 13. Artikulua.

DIRUZAINAREN eginkizunak.

FUNTSEN ADMINISTRAZIOA:

- Diru-sarrerren kontrola (dohaintzak, diru-bilketak eta abar).
- Fakturak ordaintzea.
- Diru-sarrerren eta gastuen kontabilitateaz arduratzea.
- Kutxa gotorra kontrolatzea.

KONTU-HARTZAILETZA:

- Balantzeak eta aurrekontuen aurreproiektuak idaztea.
- Aurrekontu-partiden betetzearen jarraipena egitea.
- Aseguruak aztertu eta kudeatzea.

ONDAREAREN ADMINISTRAZIOA:

- Ondasunen inbentarioa egitea eta eguneratzea.
- Elementuak erostea eta saltzea.
- Inbentario eguneratua eta ondasunen balioztapena.

BALIABIDEEN KUDEAKETA:

- Kofradiakideen kuotak kobratzea.
- Finantzaketa-proposamenak egitea.
- Funtsak aplikatzea.

■ 14. Artikulua.

ARTXIBOZAIN-DOKUMENTALISTAREN eginkizunak.

- Kofradiarekin eta Andre Maria Zuriarekiko debozioarekin lotutako funts dokumentalak berreskuratzea (testualak, grafikoak eta telematikoak).
- Kofradiaren artxibo historikoa eta administratiboa antolatzea (ordenatzea, deskribatzea eta zabaltzea).

- Kofradiaren dokumentazio guztia egoki gordetzeko beharrezko diren baliabide materialak proposatzea.
- Kofradiaren historia eta Andre Mariarekiko debozioa hedatzen kolaboratzea, bai ekimen propioko proiektuen bidez bai beste erakunde batzuekin elkarlanean, adibidez:
 - I. Erakusketak.*
 - II. Proiektu zehatzak.*
- Kofradiako kargudunei aholkularitza eta lankidetzak eskaintzea berezkoak zaizkien zereginak betetzean sortutako dokumentazioarekin lotuta, eta dokumentuak tratatzeko, artxibatze eta antolatze sistemak proposatzea.

■ 15. Artikulua.

KOMUNIKABIDE SOZIALEN ARDURADUNAREN eginkizunak.

- Komunikabideekiko harreman-sistemak ezartzea eta hedabide horien (prentsa, irrati eta telebista) harremanetarako datuak (helbidea, helbide elektronikoa, webguneak eta abar) eguneratuta izatea.
- Kofradiak antolatutako ekitaldiak komunikabideei jakinarazteko moduak proposatzea:
 - I. Prentsa-dosierrak.*
 - II. Ekitaldietarako komunikazio-ereduak.*
- Informazio buletina koordinatzea eta idaztea.
- Kofradiaren ekitaldi eta ospakizun propioekin zein Andre Maria Zuriarekiko debozioarekin lotuta komunikabideek sortutako informazio grafikoa, testuak eta irudiak errekuperatzea, eta artxi-bozainari laguntzea artxibo-sistemetan.
- Webgunea, sare sozialak eta bestelako bitarteko digitalak mantentzea.

■ 16. Artikulua.

PLANGINTZA ETA PROIEKTUEN ARDURADUNAREN eginkizunak.

- Urteko jardueren plangintza ezartzea, behin Gobernu Batzordeak onartu eta gero, ohiko Batzar Nagusiak berretsi dezan.

- Aurreikusitako jardueren programazioa garatzea, helburuak, ekin-tzak, baliabide materialak, giza baliabideak eta egutegia zehaztuz.
- Gobernu Batzordeko beste kide eta arduradun batzuekin batera, aurreikusitako jarduerak garatzeko prozedurak ezartzea.

■ 17. Artikulua.

BOLUNTARIOTZAKO ARDURADUNAREN eginkizunak.

- Boluntariotza-plan bat egitea eta garatzea.
- Boluntarioek zer lan egin behar duten zehaztea, boluntarioak Kofradiaz sentsibilizatzea, eta boluntarioei dituzten helburuak, eskubideak eta betebeharrak jakinaraztea.
- Boluntario izateko interesa duten pertsonen harrera egitea eta informazioa ematea.
- Gobernu Batzordeari kolaboratzaileek aurkeztutako ekimenak, kezkek, hobetzeko proposamenak eta beste helaraztea.

IV. TITULUA

ABADEAREN/ABADESAREN HAUTAKETA

■ 18. Artikulua.

Batzar Nagusiari dagokio abadea/abadesa hautatzea.

■ 19. Artikulua.

Abade/abadesa kargua hutsik geratzen denean (agintaldia bete delako, dimisioa eman delako, hil egin delako...), ordezkoa hautatzeko prozesu bat irekiko da, jarraibide hauek betez:

- Ezarritako epean hautagaiak aurkeztu beharko dira, aintzat hartuta epea Batzar Nagusia egin baino 45 egun lehenago itxiko dela.
- Hautagaiak ezarritako eskakizunak bete beharko dituzte, eta Batzar Nagusia egin baino 30 egun lehenago izendatu behar ditu hautagai gisa Gobernu Batzordeak. Kofradiaren bide ofizialak erabilia emango dira jakitera hautagaitzak.

■ 20. Artikulua.

Batzar Nagusian zehar egingo da izendapena, betiere honako baldintzak betez:

- Hautagaitza bat baino gehiago badago, bozketan gehiengo soila lortzea.
- Hautagaitza bakarra badago, gehiengo kualifikatua lortzea (bertaratutakoen % 60 baino gehiagoren botoa).

Batzar Nagusia egin eta epearen barruan aurkeztutako hautagairik ez badago, abadea/abadesa bertaratuen artean hautatu ahal izango da, betiere bertaratutakoen % 75 alde badaude.

■ 21. Artikulua.

Behin Apezpikutzaren konfirmazioa jasotakoan, abadeak/abadesak 30 eguneko epea izango du Gobernu Batzordea osatzeko, karguek eta batzordekideek osatuko dutena, Gobernu Batzordea eratzeko bilkuran bertan hautatuak izan eta gero. Kofradiakideei Gobernu Batzordearen osaera zein den komunikatuko zaie, eta hurrengo Batzar Nagusian ere emango da informazioa.



**ORDENANTZAK
ANDRE MARIA ZURIAREN
KOFRADIA**

© Andre Maria Zuriaren Kofradia
Vitoria-Gasteiz, 2023ko urriaren 17a

Zapatari kalea, 35
01001 Vitoria-Gasteiz
945 277 077
info@cofradiavirgenblanca.com
www.cofradiavirgenblanca.com

